

jokulariak 116

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES Y ACTRICES VASCAS
udazkena 2019 otoño

**BELEN
CRUZ**
AKTORE ETA
17 URTEZ EABN





aisge

www.aisge.es

AISGE *es lo tuyo*

Si eres actor o actriz audiovisual,

¡HAZTE SOCIO!

No te
costará
nada,

Te beneficiarás
de nuestra labor
asistencial y
formativa

Y recibirás los
derechos que te
corresponden



116

udazkena
otoño
2019
Azala Eneko Olasagasti



08



06



16

SUMARIO

- 04 **EDITORIALA**
Denok zarete
beharrezko
EAB
- 06 **IKASTAROAK**
- 08 **Belen Cruz**
Aktore eta 17
urtez aktoreen
ordezkari
Eneko Olasagasti

- 16 **Sormen prozesuaren**
parte izan
Esther Uria
- 18 **OHARRAK**

jokulariak



EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe n° 23 A
4° Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbo Eszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

admon@actoresvascos.com
eabbilbao@actoresvascos.com
www.actoresvascos.com

Koordinazioa, edizioa
Eneko Olasagasti
Maketazioa, diseinua
I. Z.
Inprimategia
Antza
LG/DLSS168/2000

Gogoratu aldizkari hau
denona dela eta gustura
hartuko genituzkela zure iritsi eta
artikuluak.
Recordad que esta revista
es de todos y que
gustosamente recibiremos tus
opiniones y artículos.

DENOK ZARETE BEHARREZKO

Jokulariak boletinaren ale hau jasotzen duzuenerako ikasturtea hasita egongo da. Zinemaldia pasata eta zuetako asko udazkeneko estreinaldietarako prestaketetan buru-belarri sartuta. Eta guk gure ohiko dinamika mar txan dugu dagoeneko.

Besteak beste, Antzerki konbenioaren negoziaketa, hortxe, atarian daukagu. Jaso dugu dagoeneko Eskenaren deia prozesua mar txan jartzeko. Horretarako guk lehenago, orain bi urte, mar txan jarri genuen batzordeko partaideei idatzi diegu EAB-ren Negoziaketa Batzorde berria sortzeko. Egia esan haietako gutxi berretsi dute bere interesa eta horrek arduratzen gaitu. Bulegotik azterketa eta prestaketa lanak egin ditzakegu baina hainbat puntu negoziatzeko unean ezinbestekoa da zuen, landidea gertutik bizi eta ezagutzen duzenon, iritziak eta ikuspuntuak ezagutzea. Azken batean gero zuei eragingo baitizue bertan jasotakoak. Beraz, interesa duzenoi bertan parte hartzea deitzen dizuegu. Alperrik da esatea guztiz garrantzizkoa izango litzatekela Antzerki Konbenio bat aurrera ateratzea. Adostasunak lortzeko ahalmena erakustez gain arloa arautuko lukeen ezinbesteko tresna izango litzatekeelako. Dagoeneko beste Erkidego batzuetan (Valentzia, Kataluña...) indarrean dagoen tresna. Zuen partaidetza behar beharrezkoa da beraz.

Konbenioetaz ari garenez, aipa dezagun euskarazko bikoizketa arautzeko mar txan zegoen Konbenioaren negoziaketa. Azken alean mahaia osatuko zela iragartzen genuen. Baina azken unean uztailaren 24ean biltzekoa zen mahaiaren osaketa bertan be-

hera geratu zen. Lehenagotik zegoenaz gain, BIEUSE (Bikoiztaile Euskaldunen Elkarte), sortu zen beste elkarte batek EHBE (Euskal Herriko Bikoizleen Elkarte) mahai horretan partaide izatea eskatu zuen. Eta bateko beste indarrak direnak direla elkarte berriak eskubide osoa du negoziaketa mahaiaren parte hartzeko. Oraingoz ez dago datarik mahai berria biltzeko.

Esku artean dugun beste gai nagusi bat Aktoreen Sariak banatuko lituzkeen Galaren antolaketa da. Zuzendaritza artistikoaz eta gidioaz arduratzeko eskeintza gure Zuzendaritza Batzordeak Javier Liñera eta Lander Otaolari egin zien. Hauen baietza jaso ondoren proposamenaren zai gaude gainontzeko makinaria mar txan jartzeko, hau da, eta garrantzitsuen, finantzaketa. Berau gabe ez baitago ez Galarik eta ez ezer. Espero dugu ale eskuetan duzuenerako abian izango gara. Informatuko zaituztegu.

Ikastaroen atalean ale honetan bertan aurkeztu dizkizuegu bi. Bilbon Fernanda Orazik emana, antzerkia oinarri, eta Joselu Castrok, bakoitzak bere bideobooka egin ahal izateko, Donostian emango duena. Hirugarren bat daukagu esku artean ere, urtero kamara aurreko interpretazioa lantzeko eskeintzen duguna. Baina zehaztu gabe dugunez oraindik aurrerago iragarriko dizuegu korreo elektronikoaren bitartez.

Oso ondo joan zenez eta egun gutxi barru mar txan izango dugun web orri berria hornitzeko Argazkiak egiteko udaberrian egin genuen eskeintza berrituko dugu bai Bilbon eta bai Donostian. Ale honetan bertan informazio gehiago doakizue.



Durante este mes de septiembre hemos recibido la llamada de Eskena para poner en marcha la negociación del Convenio de Teatro. Hemos convocado a los que formaron parte de la anterior comisión negociadora pero sin mucho éxito. Os invitamos a los interesados en formar parte de la misma a que os pongáis en contacto con nosotros. Desde la oficina podemos hacer mucho en el trabajo previo de estudio y presentación de nuevas propuestas pero sois vosotros/as los/as que, viviendo la realidad del teatro, deberíais tener la última palabra a la hora de elaborar las propuestas. Vuestra participación es indispensable para llevar adelante esta negociación.

En relación al convenio de doblaje en euskera, la mesa negociadora que se iba a reunir el 24 julio suspendió la formación de la misma porque la asociación EHBE (Euskal Herriko Bikoizleen Elkartea) pidió formar parte de la misma además de la que ya lo hacía, BIEUSE (Bikoiztaile Euskaldunen Elkartea). De momento no hay fecha prevista para la formación de la mesa.

El otro tema importante que tenemos entre manos es la Gala de los Premios de Actores y Actrices. Javier Liñera y Lander Otaola se encargarán del guión y la dirección artística. En cuanto tengamos su propuesta, en breve, nos pondremos a buscar la financiación. Esperamos que en otoño podamos cerrar la cuestión. Os informaremos.

Además de los cursos que anunciamos en este número, repetimos la oferta que hicimos en primavera para renovar o hacer nuevas fotos.

EHBEko bikoizleek Bieuse-ri

«Alegiaren erakutsia argia da, "gezurra esateak egiaren ulermena eragozten du". Hori da, hain zuzen ere, Fake news delako horiekin gertatzen dena: berri faltsuek ez dute benetako informazioa sinesten uzten. (...)

Fake news-ak informazio osoa erlatibizatzen du eta bere bertsioa bakarrik hartzen du aintzat. (...) Gezurra, Derridak dio, ez da gertaera edo egoera objektibo baten ezeztapena, hori errakuntza litzateke, nahita egindako adierazpen partziala edo erabat nahasgarria baizik. Bere ustez, gezurrak nahikotasuna behar du. Berarizkoa da, berez.»

Rodríguez, Fito: *"Fake News-ak ez dira atzo goizekoak"*. Donostia, Utriusque Vasconiae, 2019

«Anai-arrebak...

... zuek ezipazerate kontentu errua ez daukat, ez, nik, txistuak jo dituzute bainan maite zaituztet orainik!»

Xalbador 1967, Donostia

EHBEko bikoizleak



EDITA TU PROPIO VIDEO-BOOK

- ▶ José Luis Castro
- ▶ Castellano
- ▶ Local AISGE, Donostia
- ▶ Noviembre: 11, 12, 14 y 15
- ▶ 09:00-14:00 h.
- ▶ Precio 100€, socios AISGE 70€
- ▶ Inscripción hasta el 4 noviembre
- ▶ Máximo 8 alumnos/as

Objetivo del Curso

Conscientes de las dificultades que tenéis muchos de vosotros/as a la hora de poder tener un video-book hemos pensado en ofreceros instrumentos para que esa labor la podáis realizar vosotros mismos. Para ello hemos organizado este curso con Joselu Castro, realizador y montador de larga experiencia.

Desarrollo del curso

Edición de video básica para actores, con Software de montaje y edición: Adobe Premiere Pro. El curso se impartirá durante 4 días (20 horas) con el objetivo de poder conocer las herramientas de montaje de video, sonido, y titulación y que nos ofrece este programa.

Cada alumno a la conclusión del curso, será capaz de disponer del conocimiento suficiente para poder montar, manipular, añadir títulos y crear una banda de sonido a un video a partir

de grabaciones de video, fotos, música y otros elementos.

El curso será presencial y se dispondrá de una estación de trabajo con conexión a un video proyector para seguimiento del curso en pantalla grande.

Los alumnos podrán llevar sus ordenadores portátiles para una vez descargado el programa de edición desde la página web de Adobe (7 días gratuito) e instalado, podrán hacer sus prácticas en su propio ordenador.

Se trabajarán los siguientes contenidos: Introducción al programa, su interfaz y sus herramientas básicas. Creación de un proyecto y secuencias. Captura e importación de materiales, organización de tomas. Crear secuencias de vídeo manipulando el timeline, las transiciones y los títulos. Aprender a usar las herramientas de montaje de sonido, pistas de audio y mezclas. Corrección de color en los clips, efectos y Keyframes. Exportación de videos, formatos más utilizados y compresiones.

José Luis Castro Montoya

Realizador, comienza su actividad en el sector audiovisual en 1.983 integrándose en el equipo de realización de la empresa Videoscop de San Sebastián.

En 1.986 es fundador de la productora Sincro y se dedica a la creación audiovisual, especializándose como realizador, montador y director de fotografía en la realización de documentales, programas de televisión y en la comunicación audiovisual corporativa e institucional.

Referencias: *Infernuko hauspoa/El Fuelle del infierno, Caminos de hierro, Sagar-doa, Aragón, Mendiak, Montes de Euskal Herria, La España verde, Lenbur, Un país en la kazuela, La vaca que llora, El último magnate, Ekainberri, Robin Food, Notas en movimiento, El peso y el espejo, Arte al agua, Festival de cine Donostia/Zinemaldia, Hilos de sororidad.*



LABORATORIO ACTUAR

- ▶ Fernanda Orazi
- ▶ Castellano
- ▶ Otxarkoaga
- ▶ Octubre: 11, 12 y 13
- ▶ Viernes y sábado: mañana y tarde
- ▶ Domingo: mañana
- ▶ Precio 100€, socios AISGE 70€
- ▶ Inscripción hasta el 7 octubre

Objetivo del Curso

Es un laboratorio que propone asomarse a la potencia del hecho de *actuar*. Un ensayo sobre la cuestión de la actuación y su territorio. Un abordaje de la actuación desde todo el universo de ideas que la debilitan o la potencian.

Desarrollo del curso

Se trata de un laboratorio articulado en una serie de prácticas de actuación a partir de las cuales desplegar y desarrollar todo el territorio de pensamientos e ideas que el propio gesto de actuar propicia.

Se nos ha dicho muchas veces que para la actuación pensar está mal. Pero cuando se dice esto, no se dice que la actuación es una máquina de producir pensamiento. Pues bien, para encarar este laboratorio partiremos de la afirmación "Todo pensamiento que se piensa desde la actuación es inescindible de ella, no es desechable ni debemos renunciar a él". Negar todo lo que el gesto de la actuación desata

en nosotros es negar la actuación como hecho vivo, como operación en el centro del lenguaje, como gesto con-movedor de sujetos pensantes y hablantes, es negar toda su potencia, es negar la imposibilidad que todos experimentamos de domarla, y sobretudo es negar su territorio poético, el despliegue de imágenes e ideas que ensanchan, siembran y hacen a la proliferación (muy preciada) de todo su campo de sentido y que es inapropiable por cualquier método, técnica, etc...

Pensar la actuación para poder actuar y dejar que la actuación nos piense para poder actuar. Este laboratorio se desarrollará entre la práctica y el pensamiento.

Fernanda Orazi

Fernanda Orazi es egresada de la EMAD (Escuela Municipal de Arte Dramático, Buenos Aires) además de formarse con otros maestros. Trabajó como actriz con varios directores, entre ellos Ciro Zorzoli, formó parte de su compañía durante ocho años, realizando un intenso trabajo de investigación centrado en procedimientos de la actuación. Actualmente se encuentra de gira por España y Europa.

Como directora en teatro estrenó su primera pieza en 2003 en Buenos Aires *Teo con Julia*, en creación con Diego Velazquez y Paola Barrientos. En 2010 estrena para el Festival de Otoño de Madrid *Susana en el agua y con la boca abierta*, en 2012 estrena *El rumor analógico de las cosas*, en Cuarta Pared, en diciembre de 2013 estrena *El futuro*, en Sala Triángulo/Teatro del Barrio y en 2018 *Encarnación*, estrenada en El Umbral de Primavera. Con su compañía El rumor trabajó del 2010 a 2013 en procesos de investigación y creación vinculados fundamentalmente a la actuación. En la docencia y coordinación de grupos de entrenamiento trabaja desde 1995, especializándose los últimos años en los procedimientos de la actuación en tanto territorio poético y de gran potencia creadora para la escena, propiciando espacios de práctica y pensamiento.



BELEN CRUZ

AKTORE ETA 17 URTEZ AKTOREEN ORDEZKARI

Testua eta argazkiak **Eneko Olasagasti**

Askok ezagutzen dizue Belen Cruz. Eta seguruenik aktore bezala baino EABko antolakuntza idazkari gisa. Urteak eman ditu, 17 hain zuzen, EAB-ren jarduna ku-deatzen. Aktore lanak tartekatu baditu ere bere denbora gehiena aktoreon interesak eta duintasuna defendatzen eman du. Eta elkarrizketan esaten digun bezala bera izan da EABk pentsatzen duena adierazi behar izan duena. Ardura astuna dudarik gabe. Hori da, besteak beste, orain bi urte kargua uztera eraman zuena. Beste gauza batzuen artean elkarrizketan kontatzen digu.

Nola sartu zinen mundu honetan?

Nire hasiera antzerki amateurrean izan zen, ORAIN taldearekin. 18 urte nituela horra sartu nintzen. Igual gutxiago, oraindik gurasoen etxean negoen eta. *Orain zirkua* zuela izena uste dut. Ikuskizuna egina zegoen. Beste lagun bat eta ni sartu ginen eta Suge enkan-tamendu numero bat prestatu genuen. Hor urte pare bat edo egon nintzen. Gero, gurasoen etxea utzi eta, laupabost urte kalean eman nituen bisuteria eta saltzen, artisautza. Eta denbora horretan utzita izan nuen antzerkia. Horrela nengoela, abuztu batean ikusi nuen *Cinco horas con Mario* Lola Herrerarekin. Victoria Eugenia, lehenengoetako errepresentazioa zen. Erabat harrapa-tu ninduen eta hor bueltatzea pentsatu nuen, Antzertira aurkeztuko naiz. Eta gainera obra berberako zati batekin aurkeztu nintzen probara. Eta hartu ninduten. Bertan hiru urte eman genituen.

Hor, belaunaldi horretan bildu zinetenen artean, kimika berezi bat sortzen da, ez?

Hain zuzen, hortik sortu zen Hika. Hirugarren urtean, bi izan ezik, Ikaskideak izan ginen Hika sortu genuenok.

Kaleko ikuskizun batekin hasi zineten, oker ez banago.

Bai, *Ohea egin gabe* izan zen lehena. Eta baita ere mantendu genuen Antzertin bertan egindako lanik, *Al-pargatak euria ari duenean*. Kriston kritika ona egin zigun Begoña del Tesok eta kritika horrekin joan ginen Eusko Jaurlaritzara baina ez ginen laguntzetara sartu. Oparitxo baten modukoa jaso genuen, 500 mila pezeta, eta horrekin egin genuen hurrengo lana. Nahiko bolo egin genituen hasi berriak izateko, 60tik gora bai. Hor hasi zen nire harremana Hikarekin eta hamar bat urtez luzatu zen. Eta Goenkale iritsi zen.

Aktore bezala sartu zinen?

Ez. Hikako gutziak sartu ziren aktore ni izan ezik.

Eta horrek Hikaren dinamikari eragin zion?

Ez bereziki. Ez... Nik aprobetxatu nuen langabezia kobratzeko. Nik baneraman denbora bat euskara ikasten. Antzerti garaian denak ziren euskaldunak ni eta Javi Marcos izan ezik. Eta orduan hartu nuen euskalduntzeko erabakia eta horretan ari nintzen egoera berria eman zenean. Beraz, langabezia kobratzea erabaki nuen eta Lazkaoko barnetegira joan nintzen. Eta hor, ba... bideak banandu egin ziren apur bat. Eta gero ya... Nik Hika utzi nuenean EAB-n nengoen, bai, EAB-n nengoen.

Ze urtetaz ari gara? 2000/2001? Zeren zuk EAB-n 17 urte egin dituzu?

2000-n bai, 2000-n sartu nintzen EAB-n.

Baina Goenkale ez al da, ba, lehenagokoa? 1994/95?

Bai, baina ni Lazkaotik buetatu nintzenean UR taldeak hartu ninduen *Romeo eta Julieta* burutzeko. Eta horretan egon nintzen, erraz, bi urte ta piku. Entsaioak zortzi hilabete izan ziren, pentsa, eta gero kriston bira, 300dik gora emanaldi egin genituen. Baina hor gaizki bukatu nuen, gaixorik esan nahi dut, noduloekin. Operatu egin behar izan nuen eta horrek eduki ninduen beste bolada luze bat geldirik. Eta gero ya utzi egin nuen Hika. EAB-n nengoen lan askorekin eta lehenagotik erabakita neukan eta halaxe egin nuen. Gainera etapa hori itxi nahi nuen... Tira, denak eraman ninduen bide berriak hartzera. Nire profesioaren alde apostu egin behar nuela erabaki nuen. Eta kontua da apostua bere horretan gelditu zela, EAB-n sartu eta, egon naizelako urte mordoak aktore lanik egin gabe. Egin ditut gauzak baina pasa ditut urte mordoak ezer serio egin gabe.

Garaiak aldatu dira baina beste haietan egiturak nahikoa itxiak ziren eta aktore batentzat bere bide propioa egitea ez zen batere erraza, ez?

Ez. Hola serio... ya EAB-n nengoela, *Manolito gafo-tas* bakarrik egin nuen. Bolada horretan, urte ta piku edo horrela, utzi nuen EAB, eta Loinaz sartu zen. Hortik aurrera oso gauza gutxi. Goenkale lau hilabete egon nintzen...



Formakuntzarekin segitu zenuen?

Bai. Nik beti. EAB-k antolatutuen ikastaro gehienetan egon naiz. Eta gero Bilbon egiten baziren ere, Pabellonen, ta gero baziren beste batzuk, Muelle 3-ek antolatzen zituztenak esaterako... Egia esan nahiko egin dut.

Eta nola hasten zara EAB-n? Kasualidadez? Bilatuta?

Egia esan, asko pentsatu gabe. Beti izan naiz aktibista, horrelakoa izan naiz beti. Behin joan nintzen bulegora eta hor zeuden Gurutze ta neska bat praktiketara... Eta hasi ziren esanez pertsona bat behar zutela eta hori... Eta ea animatuko nintzen galdetu zidaten. Eta nik, ba, bale... eta horrela sartu nintzen. Jakin gabe oso ondo zer egin behar nuen.

Eta nola hasten zara jabetzen zer den EAB?

Egia esan sindikalismo puntua... benetako sindikalismoa nik ez nuen sentitzen garai horretan, gehiago zen... Elkarte bat, Galak direla batetik, eta horrelako gauzak. Ez zegoen konbeniorik edo horrelakorik garai horretan. Eta gero, horrela, sindikalismo puntu gogorra sartu zitzaidan OSAAE-n sartu ginenean. OSAAE-n ni oso inplikaturik izan nintzen Estatu mailan. Ni joaten nintzen konbenioko bileratara.

Konbenio estatala?

Bai, konbenio estatala. Ikusentzunezkoa. Eta hor hasi nintzen jabetzen eta sartzen. Ordurako hemen bagenbiltzan ya antzerkiko eta ikusentzunezko konbenioak

atera nahian. Eta gogoratzen dut ikusentzunezko konbenio estatala sinatu zenean, hemen, bertako ekoizpenezko %15ko rebaja onartu genuela. Erabaki hori oso kritikaturik izan zen. Ni mahai horretan nengoen eta rebaja hori defendatzea tokatu zitzaidan. Ezin ziren konparatu Tele 5 edo Televisión Española publikitatean jasotzen zutena eta, beraz, ekoizteko zeuzkaten aurrekontuak eta hemengoak. Niri tokatu zitzaidan hori defenditzea eta beste herrialdetan ez zuten ulertzen. Baina, bizitzaren gauzak zer diren, gero katalanek jo zuten horra, galegoek... eta valentziarrek ere bai.

Niri gauza bat deigarria egiten zait. Aktore lana hain indibidualista izanik, nahiz eta taldeak egon, beste alde batetik mogimendu sindikal gisa agian hedatuena izatea. Indar handia erakusteko gai dela alegia.

Ba, bai... AISGE sortu zenean, genuenean, ehun sinadura behar ziren egoitza Donostian egon zedin. Eta lortu genuen. Eta hori EAB-tik egin zen. Ester eta biok. Gogoratzen dut orduko idazkari Nagusia Patxi Barco zela. Eta hor aritu ginen egoitza propioa izateko sinadurak biltzen.

Oker ez banago Estatuko aktore Elkartearen artean beti egon dira arazoak elkar hartzeko, ez?

Garai batean, Koordinadoreekin, hor geunden denok galegoak izan ezik. Kongresu bat egon zen, ez dut gogoratzen zehazki noiz, Ramon Ibarra Idazkari nagusi zen garaian, katalanek esan zuten gauzak erabakitzeko beste modu bat ezarri behar zela. Ordura arte afiliatu kopuruaren arabarberakoa zen eta, horrela izanik, Madri-



lek erabakitzen zuen guztia. Gure hitza sinbolikoa zen. Hori aldatu nahi izan zen eta kristona montatu zen. Eta hortik atera zen OSAAEE. Handik gutxira katalanek deitu zuten eta han bildu ginen haiek, Valentzia, Euskadi eta Aragoi. Nik uste dut alde horretatik OSAAEEK oso ondo funtzionatu zuela, oso berdinzalea zen, eta oso jende potentea egon zen hor, Fran Cabré, Vicky Peña, Isabel Requena... eta gauza asko egin ziren. Eta handik hamar urtera gu izan ginen esan genuenok, berriz elkartu behar dugu... Gainera, Ministerioak ez zuten ulertzen, FAPAEk ez ta ere... Bileretara bi elkarte joaten ginen FAE eta OSAAEE. Bileretara joan aurretik lehenago bi elkarteok biltzen ginen zerbaite adostu eta FAPAEra joateko. Ridikulu handia zen hura.

Baina OSAAEE baita ere...

Bueno, bai, OSAAEE desagertu zen eta CONARTE sortu zen. Garai hartan ni nintzen OSAAEEko lehenakaria. Eta egin genuen bateratzeko kongresua... Ez zen erraza izan egia esan... Ez dakit orain nola egongo den kontua, ze gu kanpoan gaude.

Ba egia esan, harreman handirik ez dago. CONARTEko Cesar Casaresekin bai izan dugu gauza puntual batzutarako. Eta zalantza bat dugunean Madrileko sindikatura deitzen dugu, edo katalanei... baina hortik aurrera ezer gutxi.

Ez dakit... zaila izan da, oso zaila izan da kontu hori. Bateratze Kongresu hori atera zen atera behar zelako baina ez konbentzitu. Gauza oso desberdinak planteatzen ziren.

Non zeuden desberdintasunak esate baterako?

Ba ez dakit zer esan... Maskulinitate toxiko bat zegoen, nire barrabilengatik esango balute bezala. Hain ridikulua iruditzen zitzaidan han gertatu zena. Egoen arteko borroka bat zen... Madrileko sindikatua indartsuena da, hor garai hartan Jorge Bosso zegoen, idazkari nagusi bezala 30 urte zeramatzana, zuzendaritza batzorde berdina... Hor ere kristona montatu zen eta bota zuten eta sartu ziren orain daudenak.

Eta bitarte horretan, piskanaka, EAB aldatzen doa... 17 urte horietako garapena, nola ikusten duzu?

Honbre, ba, profesionalizatzen joan da. Profesioak berak aurrera egin duen neurrian EAB ere bide horretan joan da. Hartu dugu ere izena, aintzat hartzen gaituzte bai ETBn, bai enpresatan, bai dirulaguntzatan aintzat hartu gaituzte, ea zer esaten duen EABk honi buruz. Nahiz eta konbeniorik ez izan beti hartu gaituzte erreferentziatuz.

Hitzarmena bai izan zen puntu importante bat.

Bai, baina hitzarmena Eskenarekin bakarrik izan da. Baina beste talde guztientzat Hitzarmenak jasotzen duena erreferentea izan da. Zeren Eskenan zenbat talde daude?

Hogei ta piku...

Ba, Eskenatik kanpo beste horrenbeste daude eta haien artean erreferente nagusia izan da. Ni Atx-ekoekin lanean hasi nintzenean akordioa mahai gainean zeukaten.



Nomofobikak eta
La Mirada, Eztena

Eta hor, EAB konsolidatzen joan den neurria izpiritu sindikalista, borrokolaria... Ez al da burokratizatzen joan piskat bat. Zuk beti esaten zenidan Batzarretara oso jende gutxi hurbiltzen dela. Hori eboluzio bat izan da?

Nik baietz esango nuke, baina azken aldian, azken lau urtetan. Nik beti esan izan dut jendea afiliatzen zela web orrian egoteko. Ikusgarritasuna lortzeko, lana bilatzeko. Gehiago esango dizut. Jende asko afilatzen zen bideobooka egiten genuen bakoitzean. Orain jada ez da behar baina garai horretan bai. Gure bideobooka zen Espainia osoan mirestuen, bai produktoreen aldetik eta bai sindikatuetatik. Gure tamaina oso aproposa zen hori egiteko, baina egin ezazu hori bera mila ta piku afiliatuekin. Garai horietako casting zuzendarien artean komentatzen zen, San Narciso eta horiek, "es que el videobook de los vascos...". Egiten genuen bideobooka gehi liburuska baina web orriarekin hasi ginenean utzi genion egiteari. Eta bestalde, ez denok baina, jende askok errepresentatea dauka. Eta gero Sare Sozialek... Sare Sozialek asko aldatu dute egoera, txarrerako eta onerako.

Ikusgarritasunagatik, jendeak edozer esan dezakeelako...?

Bai, azkenetakoa Onintza Enbeitari gertatutakoa...

Eta Barbara Goenagari...

Eta begira, nik gauz hauek gertatzen zirenean oso gaizki pasatzen nuen EABn, oso gaizki... Jendea hasten zen: eta EABk zer esaten du honi buruz? EABk zer egingo

du...? Mirenena gertatu zenean... Niretzat hori gertatzean basoak gainezka egin zuen. Ni nekatuta nengoen, egia esan, urte asko hemen egonda beti hori, ez? Ni nintzen EABren aurpegia, denerako... EAB ez da inplikatu honetan, ez da inplikatzeko beste honetan, EABk ez du esaten... Eta ni nintzen hori beti. Gogoratzen dut Mirenena gertatu zenean... bueno, bueno, bueno, berriak sutan nituen. Guk lehenengo momentuan esan genuen ez goaz ezer egitera, gauzak gehiago pizten dirako. Eta ez badugu ezer egiten kontua lasaitu egingo da. Beste gauza guztiak bezalaxe, bi egunetan bor bor... eta gero mundu guztia ahaztu egiten da. Eta horrekin gogoratzen dut, Mirenekin hitzeginda, pentsatzen genuela onena zela ezer ez egitea. Eta kristona montatu zen, nola ez dela ezer egingo eta abar... eta ia ia behartuta egin genuen komunikatu hura.

Zure lana, zure egoera asko aldatzen zen momentuko Idazkari Nagusi edo Zuzendaritza Batzordearen arabera? Zeren horrelako egoera askoren aurrean bilatuko zenuen Zuzendaritza Batzordearen babesa, ez?

Bai, baina... Ez dakit zuk nola eramango duzun baina kasu horietan ere... Ea zer esaten duen Belenek entzuten nuen. Zer egingo dugu? Eta nik, zuek esan! Eta hartu genuen erabakia batzordean adostuta hartu genuen. Baina ni... Ni ez naiz babestuta sentitu. Gero batzordeak eta batzordeak daude, eta batez ere pertsonak, persona batzuk... egon dira, baina gehienetan jendea etortzen zen batzar eta batzordetara ea Gurutzek eta biok zer esaten genuen, gehienetan... Ni ho-



Anarkia relacional
Mila Espiga eta
Belen Cruz

dio? Baina ez repartotan parte hartzeko, lanerako eta gelditu naiz Gurutze bezala. Beste Gurutze bat izango banintz bezala. Eta orduan, ba, bueno... akabo! Nik hórrela hartzen ditut erabakiak beti, gailurrera iritsi eta hautsi egiten naiz.

Damutzen zaizu utzi izana?

Ez. Uste dut beharrezko erabakia zela. Niretzat dudarik gabe baina EABrentzat ere bai. Horrela ikusita... Batzarretara jendea ez etortzea eta... eramaten zaitu gauzak zure erara egitera, zure etxea balitz bezala, gauzak antolatzea gu aita eta ama bagina bezala. Guztiaren antolatzaile diren figurak.

Eta sentitzen ari zara erabakiak eraman zaituela aktore bezala zure izaera errekuuperatzera?

Ez. Horretan nabil. Eta bigarren edo hirugarren dibilosioan, argi eta garbi. Nire burua hirugarren mailan ikusten dut, profesionalki...

Eta hori, beharbada, profesioa egun horrela antolatuta dagoelako, lehen totum revolutum bat zena gaur sailkatuta dagoelako?

Nik uste dut konpainiek eta produktorak ez dutela aposturik egiten. Dagoela ez dakit nor goian ba horra goaz. Eta nik ez dut esango txarrak direnik, jakina, hor baldin badaude Miren Gaztañaga edo Eneko Sagardoy bezalakoak, haiekin denek lan egin nahi dutenak, hor badaude zeozergatik da. Nik esango nuke produktorak apostu gutxi egiten dituztela. Eta hoietako gehienak ezagutzen ditut, eta deitu izan naute galdetzeko: aizu, paper hone-

rrela sentitu naiz. Eta alde horretatik presio handia zeren batzutan erabakiak hartu behar dira eta pentsatzen duzu agian hanka sartzen ari naiz. Hori izan da gehien erre nauena. Eta ez bakarrik batzordeak... Esaterako, konbenioarekin ari ginenean Batzar Nagusia eta... hamabi. Eta horien artean zortzi paseo bat ematera datoz, ez gauza proposatzera. Eta hori karga handia da. Eta gero profesionalki ere ni nintzen sindikatukoa. Nirekin gogoratzen ziren galdetzeko: Aizu, EABk zer

tarako zein...? Eta ni...Eh! Hemen nagoela. Askotan esan diet zuk badituzu bi-hiru aukera... egin itzazu saio pare bat eta ezagutu jendea. Tallertxo bat antolatu, ez dakit.. Hori egin nuen nik Teatre du Rivagerekin... Hoge bat lagunekin taller bat egin genuen eta gero zortzi aukeratu zituzten. Ez zuten gutako inor ezagutzen eta hori egin zuten. Egin horrelako zerbait jende berria ezagutzeko, ba... Nondik ezagutzen da jendea? Eszenatokitak... Orduan, eszenatokitetan daudenak segituko dute lanean.

Zein da 17 urte hauetatik daukazun oroitzapenik onena eta txarrena?

Okena ta txarrena...? Txarrena sare Sozialen agerpena, argi ta garbi. Nahiz eta jendea pentsatu laguntzen duela ni ez dut uste. Eta onena...? Bada, Gurutzekin lan egitea. Kriston emakumea da eta kriston profesionala. Kriston suertea eduki dugu EABn Gurutze bezalako emakume bat izatearekin, bai.

Eta aldaketa handia nabarmentzen duzu zuk hartu zenuen EAB eta utzi duzunaren artean?

Bai, lehen esan dizut... Profesionalizatu dela, alde guztietan. Bai, profesionalizatu eta kontutan hartzen gaituztela. Gaur egun erreferente bat bihurtu gara.

Bi urte pasa diren honetan utzi zenuenetik... Distantzia piskatekin, nondik hazi beharko lukela uste duzu?

Gauza berriak...? Ez dakit. Nik uste dut apostuak jarraitu behar duela formakuntzan, aukera gutxi baititu-

gu profesionalok hemen Euskal Herrian. Sormanaren parte izan egitasmoari jarraipena eman behar zaio, Handitu behar duela uste dut. Eta sindikalismotik, edo hobe esanda profesiotik... Sortze prozesuak, ekoizpen garaiak, murriztu egin dira eta horrek zuzenean eragiten digu aktoreoi. Oso denbora gutxi daukagu sortzeko, sormena garatzeko eta uste dut horrek islada daukala emaitzetan. Eta orduan lanak nahiko mugatuak ateratzen dira, aurreikusitakoaren arabera, hasieratik garbi baitago zer lortu nahi den, ez dago sorpresarik... Eta nik uste dut hori, enpresarioek ere ikusi beharko luke-tela. Ahaztu egiten da gu sortzaileak garela... ere. Eta nik uste dut kalidadean ere hori nabarmentzen dela.

Estandarizatu egin dira modeloak... Eta orain zertan ari zara?

Eztenako azken egitasmoan hartu dut parte. Esperientzia izugarria izan da. Hain zuzen ere sormenari garrantzia eman zaiolako. Eta emaitzak ere ikaragarriak izan dira. Nik Olatz Beobide sekula ez bezala ikusi eta hori sortzeko aukera izan duelako da. Ni neu ere

hegan egin izanaren sentsazioa eduki dut.

Bestetik, Mila Espigarekin batera sortu dugun ikuskizuna, *Anarkia Relacional*. Bilbon estreinatu genuen Puro Bolo llo jaialdiaren baitan eta LGT-BI-REN gaia lantzen dugu. Oso pozik gaude izan duen harrerarekin.





SORMEN PROZESUAREN PARTE IZAN

Idatzi hau hausnarketa eta geldiune gisa hartzen dut. Begirada atzera botata, 2017an izan zen Sormen prozesuaren parte izan proiektuaren lehen apustua. Helburuen artean antzerkia hezkuntzara hurbiltzea eta gaztedian, nolabait, halako antzerkiarekiko zirrara piztea zen. Helburu hauekin batera, antzerkiaren bidez, nerabeek beren errealitatea esploratzeko espazioa eraikitzea zen asmoa eta euren mundua taularen gainean jartzea beraiek prozesuaren protagonistak bihurtuz.

Hasi ginenean ez genekien nora iritsiko ginen bidai honetan. Geure beldurrak bagenituen, baina esperientzia arrakastatsua izan dela esan dezakegu jasotako ebidentziengatik. Gipuzkoan lau aldiz egin da eta behin Bizkaian. Bostgarren txandara hurbiltzen ari gara udazken honetan Bidasoaldean.

Hainbat aktorek eta zuzendarik parte hartu du sormenaren "bidai" bakoitzean. Hasten zirenean ez zekiten ondo zeri egiten zieten aurre. Denbora gutxian sormen prozesuan sartzen ginen, artista eta nerabeen artean bizikidetzara berezi bat sortuz. Etengabeko elkarriketa eta negoziazio espazioak konpartitu dituzte profesionalek eta nerabeek. Horrela, prozesuaren amaieran bidai trinko baten bizipenaren sententzioarekin gelditu direla aipatzen dutelarik.

Aktore profesionalekin sortzen den harremana majikoa dela esan dezaket. Polita da begiratzea ikasleen begiak zabal-zabalik, beraien gertaerak, esaldiak, ideiak eta hitzak taula gainean islatuta ikusten dituztenean. Entzunak sentitzen dira. Sormenaren parte dira. "aktore profesionalak gure ikastetxera etorri dira lanera, eta gure esaldiak hartu diztute kontuan, gure ideiak..." (ikaslea).

Ederra da, prozesua amaitzerakoan, nerabeen besarkadak jasotzea. Ikasleak eskertuta sentitzen dira. "Berezia sentitu naiz" (ikaslea). Antzerkiaren bidez errealitatea aztertzeko eta enpatia lantzeko bide bat dela aipatzen dute. "pentsatzen laguntzen digu" (ikaslea). Euren iritziak eta sentimenduak botatzeko askatasuna izan dutela aipatzen dute; zerbait ez ohikoa gelako testuinguruan. Tamalez, hau entzutean, gaurko hezkuntza sistemaren hutsuneak bistan jartzen dira. Irakasle batek aipatzen duen bezala, antzerkiak, gaiak lantzeko beste modu bat eskaintzen du, eskolan ematen diren modutik irteteko: "Kokoteraino daude. Txapa bat da" (irakaslea). Irakasle batzuk adierazita, antzerkia guztiz erabilgarria da ikasgai akademikoak irakasteko eta zeharkako disziplina bat izan daiteke edozein material lantzeko.

Momentu bereziak sortu dira ere. Ekitaldi batzuetan irakasleak ere emozionatu egin izan dira. "Malkotan egon nintzen" (Irakaslea). Adibidez, emanaldi batean, etxeko biolentzia islatu zen antzerki pieza baten ondoren, ikasle bat altxatu eta bere etxean bizitako tratu txarrei buruz hitz egiten hasi zen ahots gora. Besteekin konpartitu nahi izan zuen bere esperientzia eta identifikatzen zen pertsoniarekin elkarriketa zuzenean sartu zen gomendioak emanez. "Hori bai izan zen guztiz irakaspene bat guztiz-tzak, zeren nola hitz egiten zuen, berak ematen zituen aholkuak, horrelako arazo baten aurrean zer egin... uste dut horrek laburtuko lukeela guzti honen lana" (aktorea). Bestalde, ikastetxeen ikuspuntutik, gurasoek ere proiektua positibotzat hartu dute. Guraso batzuek aipatu duten bezala, beren seme-alabei zerbait mugitu zaiela nabaritu dute. Irakasle batzuk talde barruko aldaketak nabaritu dutela adierazi dute ere. Beraien arteko liskarrak baretu eta ikasleen arteko harremana sendotuz.

Guzti honekin, aktoreek nerabeen azalean sartzeko aukera izan dute, baina, aldi berean, norberaren beste garai bateko azalera bueltatzea suposatzen du. Aktoreentzat, maila profesionalean nahiz pertsonalean esperientzia garrantzitsua izan dela esan dezaket. "Beraiek hobeto ulertzeko. Azken finean, nerabe garaira bueltatzea bezala izan da. Horretarako ez da egoten aukera asko, hau da, eguneroko bizitzaren errealitatean sartu eta gero beraiekin batera errealitate hori antzezteko" (aktorea). "Niretzako izan da aberatsa,... eta kentzea aurreiritziak eta botatzea horrela piztutik, eta gero ere gazteekin ere konpartitzea, bada, mundu hori denok bizi izan duguna baina ahaztuta daukaguna. Eta ezinbestekoa esango nuke. Hau egin beharko zen sistematikoki, ez?" (aktorea). "Oso trinkoa izan da, eta batez ere nerabeekin egotea, beraien ekarpenak, nola sentitzen dituzten gauzak, eta nola adierazi diguten benetan islatzen ari ginela beraiena" (aktorea). Zuzendariek nerabeen zerbitzura egon behar izan dute. Ikasleen materialetatik abiatutako sormen bat da, eta beharbada zuzendariak euren burutik pasatuko ez zitzaizkien elementuekin topatu dira. Material hauek sormenerako opari bat bezala hartuaz, horrekin jokatu behar izan dute. "Ba nire ustez beharrezkoa da horrelako proiektu gehiago egotea. Honek artista elkartzen du ere nerabeekin eta iruditzen zaizkela elkarbizitza hori super garrantzitsua dela bizitzen ari garen momentuetarako" (zuzendaria). "Esperientzia bat izan da beraiek ezagutzea, beraien beharrak entzutea, eta hortik, zerbait sortzea luxu bat. Eta emaitzarekin izan da prozesu bera, ez dela emaitza, (...) eta beraiek nola parte hartu duten eta nola eraman ditugun galdetzea, ikertzea..." (zuzendaria).

Niretzat, aldi bakoitzean, abentura berri bat izan da. Talde profesional, ikastetxe, ikasle berriak... bide honetan ikasi dut eta baita akatsak egin ere. Baina daukadan

ziurtasun bakarra, bihotza eskatzen duen prozesu bat dela. Denbora gutxian gauza asko gertatzen den bidai honetan, emaitza ez da garrantzitsuena baizik prozesua bera, eta honek elkarrenganako entzumena, konfiantza, eta elkarriketaren beharra eskatzen du.

Paradoxikoki, esan dezaket, nahiz emaitzan ez fokalizatu, antzeppen indartsuak sortu direla. Denok kreatzioak eskatzen duen halako ahultasun egoera batean sartzen garelarik "taldearen" esanahia sendotu egiten da. Eta bukatzen dugunean, elkarrekin zerbait BIZI izan dugunaren sentsazio tinkoa gelditzen da airean.

Guzti honek hausnarketarako eta azterketarako espazioak irekitzen ditu. Antzerkia bizitzaren laborategi bat bihurtzen da, baina afektuz eta emozioz bustitako laborategi bat.

Argi daukat, esperientzia honen emaitzak ikusiaz, horre-



lako proposamenek daukaten potentzialitatea eta eragina hezkuntzan. Pertsona bakar bati bakarrik iritsi bazaio, edo "klik" bat sortarazi badio barruan, horregatik bakarrik merezi izan du. Inpaktu txikietan sinisten dut mundua eraldatzeko modu bezala. Jarrai dezagun orduan. **Esther Uribe**

SORMENAREN PARTE IZAN GIPUZKOAN(5)

ZER

Zazpi egunez eta goizez, 15-20 minutuko pieza laburrak prestatuko dira, bost aktore eta zuzendari bat taldeko, DBH3-ko ikasleen partaidetza aktiboarekin haiek aukeratutako gaien gainean. Beti ere bizikidetzarekin zerikusia dutenak.

NON

Irungo Toki Alai eta Irubide ikastetxeetan.

NOIZ

Urriak 28tik azaroak 8ra arte. Egun bat bilera, bost entsegu prozesua eta bat emanaldia. Eguna zehaztuko ditugu.

LAN ESKEINTZA

10 AKTORE behar dira. Ordainsariak: 50€ entsegu eguneko eta 190€ emanaldiagatik. Gizarte Segurantzaren alta emanda.

EPEA

Izena emateko EAB-rekin harremanetan ipini, urriak 11 azken eguna delarik. eabdonostia@euskalaktoreak.eus 943314822. 688619788



ARGAZKI ESKEINTZA

Udaberrian egin genuen argazkiak berritzeko eskeintzak izandako arrakasta ikusita udazken honetan errepikatu egingo dugu bai Donostian, Mikel Martinezekin, eta bai Bilbon, Son Aoujilekin. Donostiakoa argazkilariaren estudioan egingo dira eta Bilbokoa BilbaoEszenan aldeztu aurretik ordua hartuta. Aurrerago informazio zehatza bidaliko dizuegu.


OFERTA DE FOTOS

Viendo el éxito de la oferta para renovar fotos de primavera vamos a repetirla en otoño. En Donostia serán en el estudio del Fotógrafo Mikel Martinez y en Bilbao en Bilbao Eszena con la fotógrafa Son Aoujil. Esta última lo serán cerrando cita previa. Os informaremos con más detalle.



INTERPRETACIÓN CON CÁMARA

Justo antes de cerrar este número del boletín hemos cerrado el curso de interpretación ante la cámara con el director malagueño J. Linares. Las fechas serán el 18, 19 y 20 de octubre. El lugar está por elegir. Pero será en un agroturismo con el alojamiento incluido. En cuanto tengamos cerrados los detalles os lo comunicaremos vía correo electrónico y Facebook.



DATUEN EGUNERATZEA

Helbidea, telefono zenbakia edo beste edozein datu aldatuz gero jakin arazi iezaguzue mesedez.

ACTUALIZACIÓN DE DATOS

En caso de que cambiéis de dirección, de número de teléfono o cualquier otro dato de vuestra ficha comunicádnoslo por favor.

SINDIKATUKO TXARTELAREN BIDEZ JASO AHALKO DITUZUN ZERBITZUEN DESKONTUAK

SERVICIOS EN LOS QUE PUEDES OBTENER DESCUENTO CON EL CARNET DE AFILIACION

GIPUZKOA

Academia de idiomas OUI	20%	www.academiaoui.com
Fotógrafo Mikel Martínez Etxezarreta	15%	www.mikelmartinez.net
Maquillaje y peluquería Ainhoa Eskizabel	15%	ainhoexki@hotmail.com
Tai Chi Chuan Eskola	15%	www.taichichuaneskola.com
Videos Zazpiterdi	15%	http://zazpiterdi.com/es
Videos Zumeta	15%	www.zumetavideo.com

BIZKAIA

Coach Yannick Vergara	20%	yannickvv@hotmail.com
Librería de Artes Escénicas Yorick	5-15%	www.libreriayorick.com/teatro/
Maquillaje profesional Alicia Suárez	15%	www.aliciasuarez.net
Peluquería Glamuforia	15%	es-es.facebook.com/glamuforia
Videos Yolanda López de Heredia	15%	yolandalzheredia@gmail.com

ANTZOKIKO DESKONTUAK

Alegria Dulantzi	0% Precios populares	www.alegriadulantzi.com
Arriaga Antzokia	25%	www.teatroarriaga.com
Barakaldo	50%	www.teatrobarakaldo.com
Donostiako Antzokiak	10%	www.donostiakultura.com
Elorrio	50%	www.arriolaka.eus/es
Gasteizko Antzokiak	20%	www.principalantzokia.org
Lobiano Kulturgunea (Ermua)	25%	www.ermua.es
San Agustin Aretoa (Durango)	25%	www.durango-udala.net/sanagustin
Oreretako Kulturgunea	10%	www.errenteria.net
Zornotza Aretoa	25%	www.zornotzaaretoa.net
Zumaia	50%	www.zumaia.eus/es

AISGE

da zurea

Ikus-entzunezko aktorea bazara,
EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

Musutruk,

Formakuntzan
laguntzaile
izango gaituzu,
lanean babesle

Eta dagozkizun
eskubideen
zaintzaile



aisge

www.aisge.es

DIRUZ LAGUNDUTAKO BERRIPAPERA

KOLABORATZAILEA



Gipuzkoako Foru Aldundiak
Diputación Foral de Gipuzkoa



EUSKO LEGBILTZARIAK
GOBIERNO VASCO

